

Zambra

▼ jagoba manterola / argazki press

U mikel lizarralde

Lesaka eta bere inguruetako kultur eskaintzan dauden gabeziak betetzea eta parte hartzeko gune bat sortzea; horiek biak dira Zambrako arduradunek areto berriari jarri dizkionten helburu nagusiak; eta, horretarako, adin, ezaugarri eta izaera askotariko lagunei zuzendutako ekitaldiak antolatu nahi dituzte: kontzertuak, antzerkia, haurrentzako emanaldiak, dantza, zinema... Betiere, Zambra astialdirako gunea izango dela kontuan izanik.

Gune berria Lesakako hainbat lagunengatik sortu da, eta aspalditik datorren proiektua da Juantxo Rodriguez zuzendariak azaldu digunez: «Lesaka beti izan da tradizioari eta festari lotutako herri bat, eta 90eko hamarkadaren hasieran, herriko ostatuak eta Udala hasi ginen musika emanaldiak antolatzen plazan. Orduan ohartu ginen halako emanaldiak egiteko aretoaren bat behar genuela; eta ostatu batzuetako jabeak elkartu, eta zerbait sortzeko prest azaldu ginen». Denbora behar izan dute proiektuaren sustatzaileek Zambra aurrera ateratzeko; baina, azkenean, prest dute guztia, eta bihar irekiko dituzte aretoak.

Kiroldegi batek era askotako kirolak praktikatzeko aukera ematen duen bezala, Lesakako aretoak kultur eskaintza zabal eta irekia eskaini nahi du. «Ezinezkoa da auditorio bat, kontzertu areto bat, zinema areto bat eta kongresuetarako areto bat sortzea. Ekimen horietarako guztietarako gune bat sortzea izan da gure ideia», dio Rodriguezek. Zentzu horretan, rock jaialdiak zein pailazo emanaldiak, jazz kontzertuak nahiz antzezlanak programatzeko asmoa erakutsi dute Zambrako arduradunek. Zuzendariak dioenez, programazioa bera ikusle mota jakin bati zuzendua egongo da egun batean edo bestean: «Ostiraletan, jazz kontzertuak, kafe antzerki emanaldiak... jende helduari zuzendutako emanaldiak prestatuko ditugu; eta, horien ondotik, musika egongo da goizaldera arte. Larunbatetan, rock kontzertuak eta festa giroko emanaldiak izango dira; eta, igandetan, berriz, guraso eta seme-alabentzako saioak». Horretaz gain, aretoaren programazioak Zambraren filosofiarekin bat egingo duela esan du Rodri-



Juantxo Rodriguez, Zambra aretoko zuzendaria.

Festa eta kultur gosearen asegarri berria Lesakan

Bihartik aurrera, Euskal Herriak kultur eta festa ekimenak hartuko dituen areto berri bat izango du: Zambra. Lesakan irekiko dute, eta herri horren kultur eta jai egarriari irtenbide bat eman nahi dio. Ez da izango, ordea, lesakarrek bakarrik gozatuko duten gune bat. 2.600 lagunentzako tokia izateak mota askotako ekitaldiak antolatzeko aukera ematen dio. Besteak beste, Tigres del Norte, Manu Dibango eta Ray Lema, Ketama, Maceo Parker eta Juan Perro izango dira datozen hilabeteetan Zambran.



Zambra aretoko areto nagusian azken ukituak egiten ari dira, ireki baino lehen.

guezek: «Astialdia parte-hartzearekin ulertzen dugu, eta gure bailararen kulturarekin estu lotuta egongo da».

2.600 lagunentzako lekua

Aretoak izango duen edukiera da, zalantzarik gabe, Zambraren ezaugarriarik deigarriena. Izan ere, jendea zutik izango den ekitaldietan, 2.600 lagunentzako tokia izango da, eta eserita ikusi beharrekoetan, 1.000 eserleku izango dira. Nolanahi ere, gehienezko zenbakiak dira horiek, inoiz gaindituko ez direnak, Juantxo Rodriguezek dioenez: «Kalitatea bilatzen dugu, eta ez jendea deseroso egotea».

Aretoa bihar irekiko dute, eta larunbatean bertan lehenengo kontzertua eskainiko du Tigres del Norte Mexikoko tex-mex taldeak.

Zambra aretoa

Otsango auzoa
31770 Lesaka
E-maila: zambra@zambralesaka.com
Webgunea: www.zambralesaka.com

Programazio irekia

Kultur arlo ugarietako emanaldiak eskaintzeko asmoarekin jaio da Zambra, eta dagoeneko prestatu duten egitaraua horren adierazle argia da. Tigres del Norte tex-mex taldeari egokituko zaio aretoa zabaltzea heldu den larunbatean, eta hortik aurrera bestelako emanaldiak izango dira hilabete osoan: Takolo, Pirritx eta Porrotx, igandean; Seyduren musika afrikarra, hilaren 20an; Calle Caliente latin-jazz taldea, 21 ean; Aukeran dantza taldeak Sutargi ikuskizuna eskainiko du 22an; Orquesta Plateria eta Carles Flavia hilaren 27an ariko dira; Kepa Junkerak hilaren 28an joko du; eta Gozategik 29an. Hortik aurrera ere, hainbat saio eta emanaldi iragarri dituzte udazkenerako. Urrian, Manu Dibango eta Ray Lema, Cosas Por Decir, Ska-P, Fernando Saunders (Lou Reeden baxu jolea), Fundacion Tony Manero eta Oskorri igaroko dira. Azaroan, besteak beste, Maceo Parker handia, Ketama, Carlos Nuñez, Albert Pla, Joe Zawinul & The Zawinul Syndicate eta Juan Perro izango dira Zambran; eta abendurako, berriz, Rosana, Jabier Muguruza eta Georges Moustakiren emanaldiak iragarri dituzte.